**PODIUMA:** *Jon Odriozola, txirrindulari profesionala* /11

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko martxoaren 2a • II. urtea • 12. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



**Goienka2a**
**Tatuajeak: bizi guztirako maitasuna**

**HERRIZ HERRI**
**Santu Martirixen eguna ospatuko dute zapatuan Osintxun /4**

**JONAN FERNANDEZ**
*"Batzuek zein besteek gobernatu, arazoa hor egongo da eta konponbidea bilatu beharko zaio"* /9

## EZTABAIDA: ERREPIDEKO SEINALEAK: EUSKARAZ BAKARRIK ALA BIETARA? /7

### *Elurra, etorri ahala joan*

Aratuste-martitzen egunean ikusi genituen urteko lehen elur-malutak. Debagoieneko herririk altuena bakarrik zuritu zen: Elgeta, hain zuzen ere. 23 zentimetroko lodierako elurra zegoen. Eguazten goizean, ibilgailu guztiendako egon zen itxita Elgetako mendatea, pare bat orduz. Baina, segituan ireki zuten, elurra kentzeko makina pasatu ondoren.



IBAN ARANTZABAL

## Taxi-bus zerbitzua Gesalibar eta Garagartza auzoetarako

Gesalibardarren aspaldiko eskaera da herriaren eta auzoaren artean garraio zerbitzu publikoa sortzea, ez dutelako Arrasatera joateko beste biderik. Oraingoan, udalak kasu egin eta taxi-busa ipintzea onartu du. Hau da, autobus lanak beteko dituen taxia. /5

Gure Bailarako Patxarana
ARBASO PATXARANA
BERTAKOA, NATURALA.
Nafarroa etorbidea, 23 M1 pabilioia • ARRASATE • 943 79 10 69

**KIROLA EUSKARAZ PROGRAMAREN AZKEN LANAK ARGITARATU DITUZTE**

# Kirolari gazteentzako fitxa didaktikoak

Martitzenean aurkeztu zituzten Bergaran herri kiroletako eta gimnasia erritmikoko euskarazko fitxa didaktikoak. Deba arroko Udaletako Euskara eta Kirol zerbitzuek bultzatutako Kirola Euskaraz programaren barruan sortu diren kirol materialen azken bi atalak dira hauek.

Kirola Euskaraz programa 1993an abiarazi zuten, eta hiru arlo nagusi jorratu ditu: sentsibilizazioa, entrenatzaile eta begiraleak euskaraz trebatzeko ikastaroen antolakuntza eta kirol materialen sorkuntza. Kirol materialiari dagokionez, bi liburu, 10 fitxa eta bideo bat argitaratu dituzte. Bestalde, oinarrizko kirol materialak euskaratzeko hurrengo bekaren deialdia ere egin zuten martitzenean. Hamaikagarren deialdia izango da, eta bi arloko fitxa didaktikoak sortzeko izango da: naturako ekintzen gaineko eta jarduera fisikoko eta kiroleko oinarrizko hizkuntzak lantzekoa. /2-3




HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • SAILKATUAK/8 • KIROLA/10-11 • NON ZER/16-17 • BERRI-ZAKUA/19 • AISIALDIA/22 • TELEBISTA/23

# Kirola euskaraz

*Oinarrizko mailetan erabiltzeko moduko fitxa didaktikoak aurkeztu dituzte*

ENEKO AZKARATE

Oraingo astean aurkeztu dituzte Bergaran herri kiroletako eta gimnasia erritmikoko euskarazko fitxa didaktikoak. Deba arroko udaletako Euskara eta Kirol zerbitzuek bultzatutako Kirola Euskaraz programaren barruan sortu diren kirol materialen azken bi atalak dira.

Deba arroko udaletako Euskara eta Kirol zerbitzuek 1993an abiarazi zuten programa da Kirola Euskaraz. Programa horrek hiru arlo nagusi jorratu ditu azken zazpi urteotan: sentsibilizazioa, entrenatzaile eta begiraleak euskaraz trebatzeko ikastaroen antolakuntza eta kirol materialen sorkuntza.

**HAMAIKAGARREN BEKA ABIAN**

Kirol materialari dagokionez, bi liburu, 10 fitxa eta bideo bat argitaratu dituzte azken zazpi urteotan. Martitzenean aurkeztu zituzten Bergaran azken bi fitxa didaktikoak, eta horrez gain, oinarrizko kirol materialak euskaratzeko hurrengo bekaren deialdia ere egin zuten. Hamaikagarren beka deialdia izango da hurrengoa, eta bi arloko fitxa didaktikoak sortzeko izango da: batetik, naturako ekintzen gainekoa eta, bestetik, jarduera fisikoko eta kiroleko oinarrizko hizkuntzak lantzekoa. Fitxak eskola-kirolean, heziketa fisikoan, kirol elkarteetan eta gimnasioetan haur eta gazteekin dabiltzan teknikari eta irakasleei zuzenduko dizkiete. Fitxok egiteko epea, lanak esleitzen direnetik hasita, bost hilabetekoa izango da, eta diru-zenbatekoa, ostera, 500.000 pezetakoa.

Esan behar dugu, bestalde, aurten beste bi fitxa didaktiko argitaratuko dituztela, aurreko beka deialdikoak, hain zuzen ere: aerobica eta prestakuntza fisikoa.

**PROGRAMA AITZINDARIA**

Programa aitzindaria da Kirola Euskaraz. "Bailarako Udaletako Euskara eta Kirol zerbitzuek abiatu genuen programa, ikusten genuelako hutsune handia zegoela arlo horretan. Deba arroko udalez gain, Jaurlaritzak eta




Kirola Euskaraz programaren azken fitxa didaktikoak oraingo astean aurkeztu dituzte Bergaran.

## Iratxe Aranburu

**Gimnasia erritmikoko fitxa didaktikoen egilea**

Gimnasia erritmikoan erabiltzen den hiztegia oso teknikoa da, eta, hortaz, hastapenetan erabiltzeko moduko berbak jaso nahi izan ditut batik bat, hau da, oinarri-oinarrizko hitzak. Helburu nagusia izan da eskoletan-eta umeei kirol hori hurbiltzea, eta horretarako, marrazkiak oso baliagarriak gertatu zaizkit. Gimnasia erritmikoan erabiltzen diren tresnei ezaugarri jolasgarriak erantsi gura izan dizkiet. Berba erabilgarriak eta erraz ulertzeko modukoak erabili nahi izan ditut. Beka horri esker egindako fitxa didaktikoak oso baliagarriak izango dira kirolari, heziztaile eta, oro har, euskaraz lan egiten duten guztiendako".



***"Gimnasia erritmikoan erabiltzen diren tresnei ezaugarri jolasgarriak erantsi gura izan dizkiet"***

## Leire Cano

**Herri kirolen fitxa didaktikoen egileetako bat**

Lan nekeza izan da, zaila, baina, era berean, oso aberasgarria, sokatira, harri jasotzea edo aizkolariak Euskal Herrian oso ezagunak izan arren, ia ez dagoelako gaiaren gaineko bibliografiarik. Horregatik, ikerketa lan handia egin behar izan dugu Onintza Garciak eta biok. Herri kiroletan adituak diren eta kirolok egiten dituzten askorekin izan gara; esaterako, Iñaki Perurenarekin. Zailena izan da kirol hori eskolara egokitzea, eta hori heziketa fisikoaren bitartez egin dugu. Guretako oso esperientzia positiboa da, eta eskertzekoa da Kirola Euskaraz programak beka horren bitartez eskaini digun aukera".



***"Ia ez dago herri kirolen gaineko bibliografiarik. Horregatik, ikerketa lan handia egin behar izan dugu***

Gipuzkoako Diputazioak ere diruz lagundu dute egitasmoa, baina uste dugu geuk hasitako bidea goragoko erakundeek segitu beharko luketela eta, azken baten, eurei dagokiela koordinazio lanak egitea", esan dio *Goienkaria*ri Bergarako Udaleko Kirol teknikari Iñaki Ugarteburuk.

Horren haritik, Kirola Euskaraz lan-mahaia abiarazi zuen Gipuzkoako Diputazioak 1997an, Deba arroko esperientzia gainerako eskualdeetara zabaltzeko helburuarekin. "Bailara batzuetan errotu da dinamika hori, baina ez guztietan", diosku Ugarteburuk. Edozelan ere, lan-mahai horretan Gipuzkoa osoko eskualdeetako Kirol eta Euskara zerbitzuetako ordezkariak batzen dira, lurralde mailako programak koordinatzeko. Jeneralean, ikastaroak, hitzaldiak, materialak sortzeko programak-eta koordinatzeko izaten da. Siadecoren laguntza ere izaten du lan-mahai horrek. Iñaki Ugarteburuk dioenez, "orain dela zazpi urte bailara honetako udalek hasitako ekimenak, gaur egun, lan-mahai horretan Gipuzkoa osoan koordinatzen dira".

**NON ZABALDU FITXAK?**
Kirola Euskaraz programaren bidez sortutako kirol materiala salgai jartzen dute. Kirol eta Euskara zerbitzuetan, Diputazioaren babesean sortutako Kirolarte elkartearen bidez eta Durangoko azokan saltzen dituzte batik bat. Ia produktu guztiak 1.000 pezetan saltzen dituzte, eta orain arte, 2.038 ale saldu dituzte. Arrakasta handiena izan dutenak kirol alternatiboen gaineko, teniseko, herri kiroletako eta gimnasia erritmikoko fitxak izan dira. Kirol elkarteak, eskolak eta erakundeak dira erosle nagusiak. Ugarteburuk dioskunez, "hasierako mailetarako oso egokiak dira, fitxak bereziki, eta ilustrazioekin jantzita datozenez, oso erabilgarriak".


ENEKO AZKARATE

## Kirola euskaraz programan argitaratutakoak

### Liburuak

- **Kirol entrenamenduaren oinarriak.** Ina Oiartzabal eta Aitor Zinkunegi. 1995
- **Futbol entrenatzailea.** Christian Bourrel eta Maurizio Seno. 1995

### Fitxak

- **Beroketa, eskubaloia, rugbia eta saskibaloia.** Alfredo Cobo eta Aitor Lasa. 1996
- **Atletismoa eta futbola.** Alfredo Lopez de Sosoaga eta Jose Ramon Eskibel. 1997
- **Karatea.** Joxean Iñarra. 1998.
- **Igeriketa.** Jasone Etxeberria eta Josune Iparragirre. 1998
- **Judoa.** Amaia Goenaga. 1998
- **Tenisa.** Jorge Aranes. 1999
- **Kirol alternatiboak I.** Zigor Gartzia. 1999
- **Kirol alternatiboak II.** Zigor Gartzia. 1999
- **Gimnasia erritmikoa.** Iratxe Aranburu. 2000
- **Herri kirolak.** Leire Cano eta Onintza Garcia. 2000

### Bideoa

- **Sasoian.** Deba arroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak. 1997

## Lore Leanizbarrutia

**Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zuzendaria**

Euskararendako oso beharrezkoak dira era horretako ekimenak, eta horiek aurrera ateratzeko ezinbestekoak dira Deba arroko udaletako euskara eta kirol zerbitzuek eta teknikariek egiten duten lana. Euskararen normalizaziorako eta Euskara biziberritzeko planerako oso egokia da Kirol Euskaraz egitasmoa. Gipuzkoa oso herri kirolaria eta kirolzalea da, baina hutsune handia dago euskarazko kirol materialari dagokionez. Hortaz, horrelako bekak bultzatzea ona da normaltasuna lortzeko. Ekimenak bultzatzeko, Gipuzkoako Diputazioa eta Jaurlaritza laguntzeko gertu izango dira aurrerantzean ere".



***"Euskararen normalizaziorako eta Euskara biziberritzeko planerako oso egokia da Kirol Euskaraz egitasmoa"***

# *Bailaran, labur*

### ELURRA

**Elurteak bailarako gainak zuritu zituen zapatu, domeka eta martitzenean**

Oraingo asteko elurteak bailarako herri goienetako kaleak zuritu ditu: Leintz Gatzaga eta Elgetan elur dezente egin zuen, martitzenean eta eguazten goizaldean, batez ere. Gainerako herrietan, gutxiago. Hala ere, bailarako mendi gainak zuri-zuri izan dira aste osoan, eta portuetan ere zirkulazio arazoak izan dira, garrantzi gutxikoak izan arren. Elgeta, Elosu, Kurutzeta eta Gatzagako gainetan izan dira arazorik handienak. /ENEKO AZKARATE

### ELKARTASUNA

**Bergara eta Saharako Gleibat Elfula herria senidetu egingo dira**

Saharako Gleibat Elfula herriarekin senidetuko da Bergara. Elkartasunerako senidetzea izango da, eta helburua da Saharan geldi dagoen autodeterminaziorako erreferenduma bultzatu eta babestea. Bergarako ordezkari gisa, Juanjo Arrieta alkateordea joango da Gleibat Elfula herrira, eta martxoaren 16tik 20ra arte izango da han, elkartasunerako senidetzea sinatzeko. Akordioa astelehenean onartu zuen Bergarako udalbatzarrak, eta errepublikaren 25. urteurrenarekin egin zuen bat. Senidetzea Euskal Herriko legebiltzarreko Paz para el Sahara taldeak bultzatu du. Dagoeneko, Euskal Herriko hainbat herrik sinatu dute hitzarmena. Hurbilean, Oñatik, esaterako. Bergararekin batera, beste hogeik ere sinatuko dute. Nazio Batuen Erakundeak 1985ean onartu zuen Sahara herriaren autodeterminaziorako eskubidea, eta erreferenduma egiteko data 1992ko urtarrilerako ezarri zuen. Hala eta guztiz ere, hautesleen errolda behar bezala osatu ahal izateko, Marokok ezartzen zituen eragozpenen ondorioz, bertan behera geratu zen bozketa. /MONIKA BELASTEGI

### KALE ISTILUAK

**Aretxabaletako BBVA bankuari eta Eskoriatzako Telefonicari erasoak**

Aste honetan kale istiluak izan dira Debagoieneko bi herritan, hain zuzen ere, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Aretxabaletan, banketxe bati egin diote eraso eta Eskoriatzan, ostera, Telefonicako egoitzari. Aretxabaletako Durana kalean dagoen BBVA banketxeari zapatu gauean egin zioten eraso. Esan behar da, urte baten buruan, hiru eraso jasan dituela. Kalte material handiak eragin dituzte hiru erasoek. Astean, ezin izan dute lana normaltasunez egin Aretxabaletako BBVA banketxeko langileek. Kanpoaldetik nabarmenak ziren azken erasoak eragindako kalteak. Ateak eta kristalak apurtu zituen erasotzaileek jarritako lehergailuak. Kutxazain automatikoan ere kalte ugari eragin zituen erasoak. Bestalde, Eskoriatzako Hidalga kalean dagoen Telefonikako egoitzari eraso egin zioten martitzen goizaldean. Etxean eginiko lehergailu bat jarri zuten egoitzaren atarian, eta hainbat kalte material eragin zituen. Lehergailua etxean eginikoa ei zen, su hartzeko likidoa eta bi botilaz osatutakoa, hain zuzen ere. /GORKA ETXABE

### ENPRESAK

**MCC taldeak kargu berriak izendatu berri ditu azken asteotan**

Fernando Gomez Acedok ordezkatuko du Jesus Catania MCCko Etxe saileko lehendakariordetzan. Korporazioko batzorde iraunkorrak erabaki berri du kargua Gomez Acedori ematea. Dena dela, izendapen hori datorren urteko lehen egunean jarriko da indarrean. Gaur egun, Jesus Catania MCCko Etxe saileko lehendakariordea da, eta datorren urtetik aurrera, Mondragon taldeko lehendakaria izango da. Fernando Gomez Acedo Fagor Elektratresnakeko zuzendari nagusia da, eta Pablo Mongelos, Fagor Garagartzako egosketa saileko kudeatzailea. Litekeena da, Pablo Mongelos elektratresnakeko zuzendari nagusi izendatzea. Azken izendapen hori, baina, oraindik ez da ofiziala. /G.E.

ARRASATE | TAXI-BUS ZERBITZUA

# Taxi-bus zerbitzua jarri du udalak Gesalibar eta Garagartza auzoetan

UBANE MADERA

Gesalibardarren aspaldiko eskaera da herriaren eta auzoaren artean garraio zerbitzu publikoa sortzea; izan ere, ez dute herrira etortzeko beste biderik. Duela gutxi arte, egunean autobus bat izaten zuten Arrasatera joateko: Aramaiotik jaisten zena. Itxura denez, baina, udalari ez zitzaion errentagarri ateratzen, eta zerbitzua kendu egin zuten.

Oraingoan, udalak kasu egin eta taxi-busa ipintzea onartu du. Hau da, autobus lanak beteko dituen taxia.

Are gehiago, erabakia oraingo astean hartu du, eta oraingo astean bertan jarri du abian zerbitzua, eguenean.

Egunero egiten du joan-etorria, zazpi aldiz; baita zapatu eta jai egunetan ere; eta noski, Garagartza auzotik ere pasatzen denez, hango auzotarrek ere erabili ahal izango dute zerbitzua.

125 pezeta kostatzen da bidaia, baina, hori bai, zerbitzu horretan sartzen ez diren taxi-bidaiek taxi-tarifen araberako ohiko prezioa izango dute. Hortaz, auzotarrek ordutegiak zaindu beharko dituzte.

**GELTOKIAK ETA ORDUTEGIAK**

Arrasaten, taxi geltokian hartu beharko da taxi-busa. Eta Garagartza eta Gesalibaren, berriz, betiko geralekuetan.

Arrasatetik irtenda, goizean bi buelta ematen ditu: 10:45ean bata eta 12:30ean bestea. Arratsaldean, 16:00etan hasten da zerbitzua, eta ordu erdiro irteten du taxiak, 19:30ak arte. Gesalibartik irtenda, berriz, goizeko 11:00etan hasten da taxi-busa, eta 12:45ean da ondorengoa. Arratsaldean, 16:15ean hasita, ordu erdi geroago irteten da bigarrena, eta ondoren, 19:45ak arte, orduro dago taxi-busa.

**BEHIN-BEHINEKOA**

Dena dela, zerbitzu hau behin-behinekoa izango da. Udalak proba moduan jarri du pare bat hilabetez, erabiltzaileen kopurua zein den jakin arte. Izan ere, udalari 1.000 pezeta kostatzen zaio zerbitzu bakoitza, egunean, 7.000 pezeta. Hortaz, zerbitzua defizitarioa izango da.

Orain, ikusi behar jendek erabiltzen duen edo ez.

**Zertzelada**

**Egunero egiten du joan-etorria, zazpi aldiz; baita zapatu eta jaiegunetan ere. Eta, Garagartza auzotik ere pasatzen denez, hangoek ere erabili ahal izango dute**

LEINTZ GATZAGA | MANKOMUNITATEAREN GOBERNU BATZORDEAREN BATZARRA

# Papera atez ate biltzeko zerbitzua esleitzeko baldintzak onartu dira

*Debagoieneko udalen elkarteak gobernu batzordea egin zuen Gatzagan*

ENEKO AZKARATE/GORKA ETXABE



Bailarako udal guztietako ordezkariak bildu ziren martitzenean Gatzagan. GOITB

Debagoieneko udalen elkarteak gobernu batzordea egin zuen martitzenean Leintz Gatzagako Udalean. Hantxe izan ziren eskualdeko udal guztietako ordezkariak. Batzar horiek hilero egiten dituzte, hil bakoitzean herri baten. Martxokoa Oñatin egingo dute, hilaren 28an. Orduko, Mankomunitateak nahi du oraingo urteko aurrekontua onartzea.

Mankomunitateko gobernu batzordeak hainbat gai aztertu zituen martitzenean. Zabor bilketa zerbitzua esleitzeko baldintzak onartzekoak ziren, baina gaia hurrengo batzarrerako utzi zuten, kontu hori aztertzen dabilen kontratazio mahaiak bere proposamena oraindik egin ez duelako. Bestalde, ezindu fisikoen garraio zerbitzua esleitzeko lehiaketako baldintzak ere hurrengo batzarrean onartzekotan geratu ziren. Honako hau onartu zuten: Mankomunitateak jasotzen duen kartoi eta papera Espanorsa enpresari saltzeko lau urterako kontratua sinatzea.

Azken gai horren haritik, papera eta kartoia atez ate biltzeko zerbitzuaren kontrataziorako lehiaketaren oinarriak onartu zituzten. Zerbitzu hori denda eta lantegi txikietara bideratuta dago. Zerbitzua lau urterako kontratatuko da, hilean 1.300.000 pezetaren truke.

Gabonetan abian jarritako planak oso erantzun ona izan du. Hain zuzen ere, 91 tona kartoi batu zituzten abenduan, urtarrilean eta otsailean denda eta enpresa txikietan. Astean hiru alditan pasatzen dira Arrasate, Bergara eta Oñatitik, eta birritan gainerako herrietatik.

**TURISMO AZOKA BERGARAN**

Mankomunitateko gobernu batzordeak mahai gainean izan zuen beste gai bat Feritur Debagoieneko bigarren turismo azokaren antolaketa izan zen. Feria hori iaz antolatu zuten lehen aldiz Arrasateko Uarkape pilotalekuan. 4.500 bisitari baino gehiago izan zituen, eta antolatzaileak oso gustura azaldu ziren azoka amaieran. Hori dela eta, aurten ere egitea erabaki dute. Mankomunitateko kudeatzaileak Bergaran egitea proposatu die Debagoieneko alkateei, maiatzaren 11n, 12an eta 13an, Bergarako Seminarioko jolastokian egiteko, hain zuzen ere. Iaz bezala, Halcon bidai agentzia arduratuko da antolaketaz. Aurrekontua 3,5 milioi pezetakoa da, baina ez zuten onartu, ebaluaziotxostenaren zain daudelako eta Mankomunitateko aurrekontuak onartzeke daudelako.

OÑATI | SAHARAREKIKO ELKARTASUNA



**Saharako banderak hartu zuen egun batez ikurrinaren tokia.** Joan zen martitzenean, hilak 27, Saharako bandera jarri zuten Oñatiko Udaletxeko balkoian. Izan ere, egun horretan, Saharako Arabiar Errepublikaren aldarrikapena ospatzen dute, eta, aurten, 25. urteurrena da. Otsailaren 22an egindako osoko bilkuran bandera hori jartzea aho batez onartu zuten. Herriko hiru taldek (Banoia, Komite Internazionalistak eta Chiapasen aldeko plataforma) egindako proposamena izan zen. Horrela, Saharako herriarekiko elkartasuna eta herri bezala duten eskubideen aldeko jarrera erakutsi zuen udalbatzarrak. /AINTZANE IRIZAR

banoa
1 9 9 Trekking
Ledesma, 10 - bis, 2. - 48001 BILBO • Tel.: 94 424 0011 - Faxa: 94 423 2039
e-mail: bio@banoa.com
Mende berriaren lehen urte honetan, Alberto Iñurrategik, iaz anaia Felixekin hasi zuen egitasmoari helduko dio berriz.

banoaren eskutik, egitasmo honetan partaide izan zaitezen aukera eskaintzen dizugu. Bidaide nahi zaitugu, kultura, mendi, herri eta pertsona berriak ezagutzeko ahalegin honetan.
Aurtengo lehen egitasmoa Jordanian zehar egingo duten txangoa da.
Ekialde Hurbileko lurralde gorrixka honek hiru altxor gordetzen ditu; PETRA, ITSASO HILA eta WADI RUM.
EGUNAK: apirilaren 12tik 22ra / TALDEA: 6 eta 12 bitartekoa + gidaria / PREZIOA: 258.000 pta.

## *Eztabaida*

Bide bazterretako seinaleen inguruan eztabaida piztu da geure artean, batez ere Nafarroako gobernuak euskararen aurka hartutako erabakia dela eta. Euskararen legea aldatu, eta lehen euskaraz eta gaztelaniaz agertzen ziren seinaleak hainbat lekutan gaztelaniaz bakarrik agertuko dira aurrerantzean.

Horretarako dirutza dezente gastatuko ei du Nafarroako gobernuak. Euskal Autonomia Erkidegoan, bietara, gaztelaniaz eta euskaraz idatzita agertzen dira, baita herri euskaldunenetan ere. Baina, zelan agertu beharko lirateke seinaleok Euskal Herrian?

# Errepideko seinaleak: euskaraz bakarrik ala bietara?

## *Rotaflexaren garrantzia*



IÑIGO ARREGI
EHEko kidea

Arrasate "Mondragón", Baiona "Bayonne",... Euskal Herria "País Vasco". Nork erabaki du hori guztia? Zein da horren guztiaren helburua?... Horretaz guztiz ohartzea zaila egiten bazaigu ere, herri, auzo, mendi, ibai eta lekuen izen aldatzeak (erdararatzeak) mendeetan aurrera eraman duten estrategia zapaltzailea izan da, eta Nafarroako gobernuak azkenaldian berriz ere abian jarri duena.

Hori da, egunak joan eta egunak etorri, errepideetako karteletan, mapetan, eta beste edozein lekutan ageri diren izenak, horrek guztiak bultzatzen gaitu gure hizkuntza gutxiestera eta elebitasunaren eztabaida antzuan murgiltzera, horrek guztiak behartzen gaitu gure izateaz, nortasunaz, ahaztera eta izate eta hizkuntza arrotza barneratzera.

Argi dago, "elebitasunak ez du bermatzen hizkuntza gutxituaren etorkizuna ez eta hizkuntzari dagokion lurraldearen izatea eta kontzientzia ere", hizkuntza ez baita gizon-emakumeen arteko transmisiorako tresna soilik, herri baten izatea bereizten duen ezaugarria ere bada. Euskal Herria euskararen herria denik ezin du inork ukatu, ez eta ezkutatu ere, nahiz eta herri hau eta hizkuntza hau hilik ikusi nahi dutenek horretan diharduten, horrela, "beraien lege eta eskubideetan oinarriturik", Euskal Herriaren ezaugarri nagusiena, euskara, mugatu, zatitu eta herritarron hizkuntza eskubideak ukatzeari ekin zioten beraien hizkuntza, gaztelera eta frantsesa, inposatuz. Gurea dena defenditu behar dugu; horretarako, margo poteak edo rotaflexak hartu behar baldin badira ere, Euskal Herria euskararen herria da-eta, ez gaztelerarena ez eta frantsesarena ere.

"Euskarak eta Euskal Herriak bizi irautea eta etorkizun oparoa izatea nahi baldin badugu, Euskal Herriaren hizkuntza eskubideen alde egin behar dugu, ofizialtasunaren alde, arlo guztietan eta lurralde osoan, euskarak maila sozial eta juridiko berri bat behar baitu".

## *Zirkulazio seinaleak*



RAFAEL GOMEZ
Al-Andalus elkarteko lehendakaria

Ilogikoa litzateke ez ikustea Euskadi, Gipuzkoa eta Arrasatek, portzentaje handi edo txikiagoan, gizarte elebiduna osatzen dutela.

Administrazio publikoek, normaltasunez funtzionatzeko, guztiongandik beharrezko zergak biltzen dituzte. Hori dela eta, behartuta egon beharko lirateke igortzen duten informazioa guztiok ulertzeko moduan ematera, lan eginez, era berean, euskara ezagunago eta mintzatuago izan dadin.

Horrela, euskararen aurka esan daitezkeenak desagertuko lirateke; ez litzateke inposatuko ikasteko aukerarik ez dena izan.

Gauzak horrela, jarrai dezagun lan egiten -norbera bere erantzukizunarekin- euskararen alde, era aurrerakoian, Euskadiko herritar guztiok gure hizkuntza jakin dezagun. Orduan izango da unea zirkulazio seinale guztiak euskaraz bakarrik egoteko.

Bien bitartean, elebidun.

## Euskaraz eta kitto!

Euskaraz bakarrik ala bietara? Batzuek gaztelaniaz bakarrik jarriko dituzte. Hor daukagu, esaterako, Nafarroako gobernuak *Lingua navarrorum*arekin egin gura duena: bertako jatorrizko hizkuntza zokoratu, apartheida sortu, toponimoak ahaztu eta baztertu. Ze letxe! Legutio eta Villarreal, biak seinale batean? Zer dela eta? Hainbat mapatan horrela dakarrelako eta euskaraz bakarrik jarriz gero, gidariak nahastu egingo liratekeelako? Aldatzea dute mapetan, edo, bestela, hor konpon! Ohituko dira. Euskara da gure hizkuntza eta jatorriko hitzak errespetatu behar dira. Zeren izenean jarri zioten Placencia de la Armas? Geurean, bertakoan, euskaraz eta bakarrik euskaraz jarri ditzagun bideetako seinaleak.

J. LARRAÑAGA
Bergara

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

***Feminismoa beharrezkoa da berdintasuna lortzeko?***

## *Gora eta Behera*

### EUSKARAREN ALDEKO MANIFESTAZIOA

Nabarmentzekoa da, Oinarriak taldeak deituta, joan zen zapatuan Iruñeko manifestaziora joan zen jendetza kopurua. Hotzari aurre eginez, euskararen aldeko konpromisoa erakutsi zuten. Gogoratu nahi dut, hala ere, euskara guztion eskubidea izateaz gain, denon ardura ere badela iraun dezan ahal den guztia egitea.

### MANUEL FRAGA IRIBARNE

Bihar, zapatua, betetzen dira 25 urte Gasteizen, langileen manifestazio batean, poliziak bost langile hil eta beste ehunka zauritu zituela. Fraga zen orduan Gobernazio ministroa, eta gaur egun, 25 urte geroago, hortxe jarraitzen du agintean, "La calle es mía" baino "Galicia es mía" esan guran, eta egindakoagatik inongo erantzukizunik hartu barik.



ITXARO ARTOLA
AEDko begiralea

## *Koplak*

### *Errealaren martxa*

Triste dago Donosti
triste gipuzkoa,
Errealaren martxa
ez da tajuzkoa.

Kontrarioak golak
errelak zero,
derrigor galdu behar
hau egin ezkero.

Egunkariak diote
Uranga petrala,
beragatik doala
behera erreala.

Jokalariak berriz
hain joko txepela,
ez dakit non daukaten
euskaldun labela.

Presidentzia nahi du
Bizkaiko oilarrak,
erakutsiaz moko
eta atzaparrak.

Akaso maiatzean
libratuko gara,
belarri lehendakari
jartzen baldin bada

IÑAKI PLAZAOLA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo, Mireia Larrañaga, Natali Martinez
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Uda ostean bake konferentziari hasiera eman nahi diotenez, Elkarrikoak herriz herri dabiltza horren berri ematen. Debagoienean, dagoeneko, egin dute hitzaldi bat baino gehiago. Bake koferentzian alderdi politikoek nagusitasuna izango badute ere, gizartearen laguntza beharrezkoa izango dela uste du Elkarrik.

MARIA AGIRRE

**Uda ostean eman gura dio hasiera Elkarrik bake konferentziari. Egingo dela ziurtzat jotzen duzue?**

Bai, hori argi dugu. Bake konferentziaren proiektuaz aurrera egingo dugu, nahiz eta badakigun zailtasun asko agertuko direla eta oztopoak eta kritikak izango ditugula. Gure asmoa da irailean bake konferentziari hasiera ematea, ahal bada alderdi politiko guztiekin eta bestela nahi dutenekin. Horretarako, ez da beharrezkoa izango alderdi guztiak mahai baten inguruan eseritzea. Beste bake konferentzia batzuetan erabili diren metodologiak aztertu ditugu, eta aukera asko dago. Irlandako bake prozesuan, esaterako, ez ziren alderdi politiko guztiak mahai baten inguruan elkartu akordioa sinatu zuten arte. Akordioa sinatu zuten egunean eseri ziren mahai baten guztiak batera.

**Esan nahi duzu bake konferentziaren gaineko irudirik ez dugula ikusiko eta informazio gutxi jasoko dugula?**

Bake konferentzia prozesua bultzatuko dugu, eta horren arabera, irudirik ez da izango eta informazioa ere urria izango da. Dena ondo joanez gero, bukaeran jakingo dugu alderdi politikoek zein akordio egin duten, baina hasiera baten, prozesua izango da.

**Lizarra-Garazik iraun zuen bitartean, alderdi politikoek izan zuten protagonismoa. Orain, gizartearen ordua da?**

Su-etenarekin eta Lizarra-Garazirekin herri honetan gauzak aldatzen joateko aukerak izan ziren, eta orduan, batez ere alderdi politikoek izan zuten nagusitasuna. Bi urte eta erdi igaro dira, eta gauzak lehen bezala edo lehen baino okerrago daude. Horren aurrean, gizarteak erreakzionatu beharra du. Zelan ez, alderdi politikoek garrantzi handia dute, baina importantea da gizartearen ahots kritikoa entzutea.

**Lizarra-Garazin zerk egin zuen huts?**

Faktore batzuk aipatuko nituzke. Batetik, Espainiako gobernuaren eta PPren jarrera immobilista, eta bestetik, ETAren jarrera autoritarioa. ETAk uste du prozesua zuzentzea berari dagokiola. Bestalde, iruditzen zait Lizarran egon ginenok eta kanpoan egon zirenek hankasartze bera egin genuela. Konponbidea eta hori lortzeko bidea nahastu genituen. Hori oso garrantzitsua da edozein gatazka konpontzeko orduan. Nire ustez, lehenik, irtenbidea bilatzeko bideak zeintzuk diren zehaztu behar da, eta ondoren, konponbidea bera adostu.

**Bake konferentziaren helburua bakea betiko lortzea dela esatea askotxo esatea da?**

Bai, hori gehiegikeria litzateke. Garbi dago gauzak oso gaizki daudela, eta une honetan ez dela aukerarik ikusten egoera honekin bukatzeko. Guk aukerak sortu gura ditugu, egoerak hobera egin dezan. Hori gutxi dela pentsa daiteke, baina nire ustez, oraingo egoeran hori ere asko da. Ez litzateke batere txarto egongo gauzak aldatzen joateko esparrua bilatzea. Elkarrizketaren bidez aukera eremuak sortzea.

**Nahiz eta gutxi lortu, hau da, emaitza eskasa izan arren, bake konferentziak merezi izango du?**

Zalantza barik, bai. Etsitzea litzateke okerrena, eta pentsatzea ez dagoela ezer egiterik. Horrelako prozesu baten mugitzea da garrantzitsuena, esperientziak batzea eta ziklo desberdinak burutzea. Horrela, bukaeran, konponbidea aurkituko dugu, bestela, ez bagara saiatzen, ezinezkoa izango da konponbidea aurkitzea.

**Bake konferentzia, zeintzuen artean? Nortzuk egin beharko lukete berba?**

Alderdi politikoek, duda barik. Baina, hori lortzeko beharrezkoa da gizartearen laguntza, eta garrantzitsua izango da nazioartean ere laguntzak bilatzea, esaterako, bake konferentzian bitartekari lanak egiteko. Indar asko bildu beharko ditugu alderdi politikoen artean, elkarrizketa prozesua abian jar dadin.

**Dagoeneko, alderdi sozialistako eta alderdi popularreko arduradun batzuek esan dute ez dutela bake konferentzian esku hartuko. Elkarrik, hala ere, aurrera egiteko asmoa du?**

Aurrera egiteko asmoa dugu. Bake konferentziaren helburuetariko bat da alderdi politikoen artean dagoen mesfidantza gainditzea. Normala da bake konferentziaren prozesua betetzen hasi baino lehenago halako oztopoak izatea. Baina, hain justu, horretarako egin nahi dugu bake konferentzia, hori gainditzen joateko. Bagenekien sektore batzuek horrelako kritikak egingo zizkigutela. Guk errespetuz entzuten ditugu kritikak, baina proiektuarekin jarraitzen dugu. Udan, bake konferentziaren gaineko proiektu zehatz bat helaraziko diogu alderdi politiko bakoitzari. Orain ideia bat da, eta udan proiektu zehatz bat izango da. Orduan izango dute alderdi politikoek aukera euren balorazioa egiteko.

**Lehendakariak hauteskundeak deitu ditu. Eragina izan dezake horrek bake konferentziaren prozesuan?**

Garbi dagoena da hauteskundeak igarotakoan ere arazoa hor egongo dela. Batzuek zein beste batzuek gobernatu, arazoak hor jarraituko du, eta konponbidea bilatu beharko zaio.

**Hiru aste igaro dira bake konferentziaren proiektua aurkeztu zenutela. Zein harrera izan du orain arte?**

Orain jasotzen gabiltzan erantzuna oso ona da. Dagoeneko, 1.000 laguntzaile ditugu, eta babes hori oso garrantzitsua da.

**Noiz edo noiz Madrilera joan behar izaten duzu. Hemengo arazoa zelan ikusten dute hangoek?**

Denetarik dago. Sektore batzuk nirekin edo nire kontra ofentsiban sartuta daude. Horien ustez, elkarrikoa defendatzen duena indarkeriaren konplize da. Baina, sektore kritikoak ere badira, arazoa beste era batera ikusten dutenak eta badakitenak euskal arazoa elkarrizketaren bidez konponduko dela. Nik uste dut ahots horiek ere apurka-apurka entzungo direla.

**Askotan entzuten da gizartea nahiko erreta dagoela. Hala ere, gizarteak zelan lagundu dezake?**

Gizartean konfiantza handia dugu. Kultura politiko handia du hemengo gizarteak. Zer egin behar duen? Erne egon, jarrera kritikoa izan, eta gero, ahal bada, jarrera parte hartzailea izan, hau da, zelanbait esku hartu, bai alderdi politiko, sindikatu edo giza mugimenduen bidez.

**Nazioartera jo nahi duzue laguntza eske. Garrantzitsua izan daiteke kanpoko laguntza?**

Prestigiodun laguntzak bilatzea garrantzitsua litzateke. Ikusten dugu kanpoan interes handia dagoela prozesuan laguntzeko.

**Zaila izango da sikiera puntu batzuetan adosis jartzea.**

Bai, zaila da. Erraza izango balitz, dagoeneko arazoa konponduta legoke. Larriena da, bitartean, biktimak daudela, eta sufrimendu handia dagoela. Horrek prozesuari presa eskatzen dio, indar guztia jarri behar dugu arazoa konpondu eta sufrimendua desagertarazteko.

**Bake konferentziarekin kartutxo guztiak erre gura ditu Elkarrik?**

Erretzeko dauzkagun guztiak, behintzat, erreko ditugu. Indar guztia jarriko dugu horretan. Aurten, bederatzi urte beteko ditu Elkarrik, hortaz, badugu esperientzia apur bat, jarrera desberdinak zeintzuk diren badakigu, eta egoera zein den ere badakigu. Hori guztia aprobetxatu nahi dugu gauzak ondo egiteko. Badugu kemena helmugaraino heltzeko.



ELKARRI

# *Jonan Fernandez*

ELKARRIKO KOORDINATZAILEA

## “Batzuek zein besteek gobernatu, arazoa hor egongo da eta konponbidea bilatu beharko zaio”

BAKE KONFERENTZIA

**“Gure asmoa da irailean bake konferentziari hasiera ematea, ahal bada alderdi politiko guztiekin eta bestela nahi dutenekin”**

IRTENBIDEAK BULTZATU

**“Aukerak sortu gura ditugu, egoerak hobera egin dezan. Gutxi dela pentsa daiteke, baina oraingo egoeran hori ere asko da”**

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko martxoaren 2a

# Aloña-Zarautz, domekan Azkoagainen

## Oñatiarrak sailkapeneko laugarren tokian daude, eta zarauztarrak, aldiz, hirugarrenak ditugu

**Domekan, Aloña-Mendi futbol taldeak Zarautz taldearen aurka jokatuko du Azkoagainen, 16:30ean. Oñatiarrak sasoi ezinhobean ditugu aurreko jardunaldian Tolosari 0-1 irabazi ostean. Asteburuan, beste urrats bat eman dezakete hirugarren mailarako igoera lortzeko, zarauztarrak Aloñaren aurretik daudelako sailkapenean, puntu bakar batera. Hala ere, Gorka Zelaia Aloñako entrenatzaileak ez du oraindik igoeran pentsatzerik nahi.**



Aloñak beharrezkoa du domekan irabaztea, hirugarren mailara igotzeko aukerei eusteko.

MARIAN GONZALEZ

Duela 16 jardunaldi Aloña-Mendi preferente mailako jaitsiera postuetan zegoen, eta azken 16 jardunaldietan partidu bakarra galdu du, Urolaren aurka, hain zuzen ere (1-2). Esan bezala, joan den astean, Berazubin, Aloña 0-1 nagusitu zitzaion Tolosari, Muxikak penalti jaurtiketa baten bitartez sartutako golari esker. Liga amaitzeko hamabi jardunaldi besterik falta ez direnean, txantxikuarrak sailkapeneko laugarren tokian daude, 49 punturekin. Euren aurretik, Zestoa liderra (53 puntu), Tolosa (50) eta Zarautz (49 puntu) daude.

Orain, Aloñak bi partidu jarraian jokatuko ditu etxean, Zarautzen aurka domekan eta sailkapeneko seigarren tokian dagoen Mundarrenen aurka hurrengo astebukaeran. Bi partidu horiek aurrera ateraz gero, Aloña igoera lortzeko lehian sar daiteke.

> *"Liga hasieran gure helburua mailari eustea zen, eta orain partiduz partidu joango gara. Ea bolada onari eusten diogun..."*
>
> GORKA ZELAIA
> entrenatzailea

Hala ere, Zelaia entrenatzaileak zaleei zuhurtziaz jokatzeko eskatu nahi die; "Liga hasieran, gure helburua mailari eustea zen, eta orain, partiduz partidu joango gara. Zenbat eta gehiago irabazi, askoz hobeto, dudarik ez. Baina, inork ez dezala pentsatu laugarren sailkatzen bagara porrot egin dugunik. Aurrealdean amaitzen badugu, ospatzekoa izango da".

Zelaia oso pozik dago jokalariak egiten ari diren denboraldiarekin: "Taldean giro ezinhobea dago, eta hori jokoan islatzen da. Azken hiru hilabateetan boladan onean gaude, eta ea domekan ere horri eusten diogun. Dena dela, Zarautz gainditzea ez da lan erraza izango, esperientzia handiko jokalariak dituelako. Hala ere, gure helburua da hiru puntuak etxean geratzea". Joaneko partiduan, Astin, Aloñak 3-1 galdu zuen Zarautz taldearen aurka.

Arrola, Albizu, Biain eta Agirre gazteek Aloñako lehen taldearekin debutatzeko aukera izan dute aurten. Gasteizko Aurreran denboraldia hasi zuen Dobao gazte bergararra ere oñatiarrekin ari da. Domekako partiduan, Urtzelaik, Lopezek eta Zubiak ezin izango dute jokatu.

# Kirolgi fundazioa, harrobiko kirola bultzatuz

## Hirugarren urtez, Debagoieneko talde eta kirolariendako dirulaguntzak izango dira

**Hirugarren urtez jarraian, Kirolgi fundazioak bailarako kirol taldeei eta bakarkako kirolariei dirulaguntzak emango dizkie, harrobiko kirola indartzeko asmoz. Hori da, hain zuzen ere, fundazioaren helburuetako bat.**

Kirolgi fundazioa 1998ko ekainean sortu zuten, Gipuzkoako Diputazioaren ekimenez. Probintziako kirola bultzatzeko fundazio pribatu baten sorrera beharrezkoa ikusten zen, eta, hortaz, kirolaren mesedetan, finantzaketa pribatua lortzea da Kirolgi fundazioaren lehen zeregina. Besteak beste, Diputazioa bera, Real Sociedad elkarte anonimoa, Kutxa, Irizar kooperatiba elkartea, Acearalia Perfiles edo Ulma taldea dira fundazioko kideak.

Aurtengo denboraldirako, Kirolgi fundazioak 250 milioi pezeta inguruko aurrekontua dauka, eta hiru dira fundazioaren zeregin nagusiak: alde batetik, Gipuzkoako goi mailako kirol taldeak babestea (Bidasoa, Arrate, Txuri Urdin, Askatuak eta beste hainbat), bestetik, goi mailako kirolariei urteroko bekak ematea (50.000 eta 700.000 pezeta bitartekoak) eta, azkenik, behe mailetako taldeekin lankidetza hitzarmenak sinatzea. Kirol modalitate guztietan, maila goreneko eta oinarriko kluben arteko lankidetza hitzarmenez bidez, kirol taldeei bultzada bat ematea da helburua. Era berean, kirolariek euren ibilbidea Gipuzkoan bertan egin dezaten lortu nahi da.

Bailarako taldeei dagokienez, joan den urtean, Almen, Aloña-Mendi, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako futbol taldeek Kirolgi fundazioaren dirulaguntza jaso zuten. Eskubaloian, Arrasate eskubaloi taldea, Bergara, Aloña Mendi eta Almen izan ziren laguntza jaso zutenak eta, era berean, pilota elkarteak, Aloña Mendiko areto futboleko taldea edo Arrasate Atletiko Taldeak ere fundazioarekin lankidetza hitzarmena sinatu zuten. Bakarkako kirolarien artean, Aitor Uberga elgetarrak eta Unai Iñurrategi eskoriatzarrak (pilotariak biak) jaso zuten beka.



Debagoieneko eskubaloi taldeek dirulaguntza jaso zuten iaz.

ARTXIBOA

Aurtengo denboraldirako ere bailarako taldeak, Kirolgi fundazioaren irizpideei jarraituz akordioa egin beharko dute dirulaguntzak jaso ahal izateko. Fundazioak ez du aditzera eman zenbat diru bideratuko den Debagoieneko kirol talde eta kirolariendako. Hala ere, Eduardo Gonzalez Kirolgiko ordezkariaren hitzetan, "harrobiko lanari garrantzi handia ematen diogu, eta fundazioa kirol espezialitate guztietan lanean ari diren taldeei laguntzeko prest dago".

**Podiuma**

# Jon Odriozola | TXIRRINDULARI PROFESIONALA |

Jon Odriozola txirrindulari oñatiarrak (30 urte) zazpigarren denboraldia beteko du profesionaletan aurten, ibanesto.com taldearekin. Iaz egindako denboraldi bikainaren ostean, aurten, aukera gehiago izango du bere kalitatea agertarazteko, taldean ez dagoelako lider jakin bat. Egunotan, Benidormen izan da entrenatzen (domekan itzuliko da), eta berarekin izan gara, telefonoz.



Jon Odriozolak ilusioz ekingo dio martxoan oraingo denboraldiari.

EDU MENDIBIL

**Zer-nolako lana egin duzu Benidormen?**

Emaztea eta biok gaude, eta Santi Blanco eta Juan Carlos Dominguezekin entrenatzeko aukera izan dut. 200 kilometro inguruko entrenamenduak egin ditugu, sei bat orduz, iraupena lantzen hasteko.

**Zeintzuk dira zure helburuak hasiberri den denboraldiari begira?**

Azkenengo urteotan bezala, nahiko berandu hasiko naiz lehiatzen, martxoaren 21ean, Portugalen, hain zuzen ere. Helburua da Tourrera eta Espainiako Itzulira sasoi onenean heltzea, eta horregatik ez dut gura denboraldi hasieran puntu-puntuan egon. Iaz, etapa askotan aurrealdean sailkatu arren, ez nuen zorterik izan etapa bat irabazteko. Nire ametsa da Tourrean etaparen bat irabazi eta lan ona egitea. Donostiako Klasikoa ere oso gustuko dut, oso bereziа da niretako.

**Denboraldi erabakigarria izango da zuretako, batetik, taldean lider jakin bat ez dagoelako, eta bestetik, Banestorekin duzun kontratua amaitzen zaizulako.**

Horrela da, bai. Dagoeneko, 30 urte ditut, eta orain arte, aurrera egin dut urte batetik bestera. Nire dohainak erakusteko ordua heldu dela uste dut, eta alde horretatik, aurten, erantzukizun handiagoa izango dut, taldeburu argirik ez daukagulako. Orain arte, liderrendako lan egitea egokitu izan zait, eta eurek kale egiten zutenean, orduan genuen gure aukera. Aurten, berriz, gauzak bestela izango dira, eta hori dela eta, ilusioz beteta nago oraingo denboraldirako. Gainera, kontratua bukatzen zait, eta datorren urteari begira, lan ona egitea beharrezkoa dut, datorren urteari begira nire burua kotizatzeko. 30 urterekin, etorkizunean ere pentsatu beharra dago.

> **"Iaz, Espainiako Itzulian eta Tourrean ondo ibili arren, ez nuen zorterik izan, eta ez nuen etaparik irabazi"**

> **"Taldean lider jakin bat ez izatean, aurtengo denboraldian erantzukizun handiagoa izango dut"**

**Zer moduzko taldea daukazue?**

Hiru itzuli handiei aurre egingo die taldeak, eta horretarako, talde indartsua izatea beharrezkoa da. Besteak beste, Dominguez eta Blanco fitxatu ditu taldeak, eta biak ere ziklista onak dira. Manceboren lana ere garrantzitsua izango da: Tourrean lehian ibiltzeko oraindik ere gazteegia da, baina etorkizun handiko txirrindularia da, duda barik. Hemendik urte batzuetara, onenen artean izango da.

**Eta zeintzuk izango dira aurtengo izarrak?**

Gazteak geroago eta hobeto dabiltza, baina betikoak izango dira: Armstrong, Ullrich, Heras...

**Pantani?**

Oso txirrindulari ona da, baina arazo asko izan ditu. Ondo egongo litzateke lehengo mailara iristea berriro, ziklismoaren onerako, batez ere, baina nik uste dut burua bere lekuan ipini beharra daukala.

**Euskaltel asko indartu da...**

Bai, eta lan polita egin dezake aurten, oso ziklista onak dituelako. Apustu handia egin du, onenen artean egoteko.

**Bestalde, txirrindularitza lutoz jantzi da Otxoa anaien istripuaren ostean.**

Oso kolpe gogorra izan da guztiondako, eta horrek erakusten du zelan ibiltzen garen txirrindulariok. Gure lanaren zati bat da, baina konponbidea beharrezkoa da. Mobilizazioak egin dira, baina hemendik pare bat astera, zoritxarrez, dena ahaztuko da, berriro zerbait gertatu arte.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Pili Arin

## Atleta eta bolei jokalaria



Pili Arin (makurtuta, bigarrena eskumatik) 1965ean.

**Bergara KEko atletismo sailean jardun zuen.**

**Luzera jauzian nabarmendu zen batez ere.**

**Boleibolean ere maila ona erakutsi zuen.**

Bergara KEk 1963-64 denboraldian atletismo saila sortu zuenean, Pili Arin orduan hasi zen, eta luzera jauzian nabarmendu zen. Pilik gogoratzen duenez, "herriko atletismoari dagokionez, sasoi arrakastatsua izan zen hura. Enrique San Nicolas zen taldeko entrenatzailea: asko zekien, eta, gainera, erakusten zekien. Zorte handia izan zen Enrique moduko tekniko bat izatea". Garai hartan, neska gutxik jarduten zuen kirolean, eta Pili Arin zen taldeko neska bakarra. Bere hitzetan, "oso burugogorra izan naiz; helburu bat jarri eta hori bete arte ez naiz trankil geratzen. Horrek kirola egiteko indarra eman dit. Gaur egun ere, mutilekin alderatuz, askoz ere neska gutxiago ari dira kirolean, alde batetik, behar besteko garrantzia ematen ez zaiolako nesken kirolari, eta bestetik, egitura guztia mutilen kirolari zuzenduta dagoelako. Bestalde, emakumeak ez dira izan gizonak bezain lehiakorrak kirolean". Gaztetan, astelehenetan izan ezik, Agorrosinen egunero entrenatzen zela diosku Pilik. 1965eko eskolen arteko txapelketan hirugarren izan zen, eta bere markarik onena 5,35 metrokoa izan zen. Hala ere, 1967an, orkatilan izandako lesio baten erruz, atletismoa lagatzea erabaki zuen.

Ordurako, boleibolean jokatzen hasita zegoen Mariaren Lagundiako taldearekin. Gazte mailan Gipuzkoako txapeldun izan ondoren, Gipuzkoako taldearekin jokatzeko deitu zioten behin baino gehiagotan; "Kirolari esker Espainia osoa bisitatu eta lagun asko egin nituen. Gero, Iruñera joan nintzenean COU egitera, kirola erabat laga nuen". Ezkondu eta gero, irakasletza eta INEF ikasketak egin zituen, eta gaur egun, heziketa fisikoko irakasle da Arrasateko institutuan. /E. M.

> ***"Gaur egun ere neska gutxiago ari dira kirolean, besteak beste, behar besteko garrantzirik ematen ez zaiolako nesken kirolari"***



Pili Arin • Bergara • 1949



# Nire Pronostikoa

PILI MUÑAGORRI / Aretxabaletako kiroldegiko aerobic irakaslea

Egia esan, ez ditut gehiegi jarraitzen pilota eta futbola, baina ea pronostikoa asmatzen dugun... Alustizak eta Belokik Titin III.a eta Zezeagaren aurka jokatuko duten finalerdian, Alustiza eta Beloki nagusituko direla uste dut, orain arte, behintzat, Belokik maila bikaina erakutsi duelako. Beste finalerdian, Unanuek eta Patxi Ruizek irabaziko dutela uste dut. Eta futbolean, Realari konfiantzazko botoa emango diogu, ea Rayori irabazten dion... 1-0, nahikoa. Bestalde, Las Palmas eta Athleticen arteko partiduan huts eta hutseko berdinketa izan daiteke.

**Oraingo astebukaerako partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Alustiza-Beloki | 22 | Titin III.a-Zezeaga | 18 |
| B/ | Unanue-Ruiz | 22 | Olaizola I.a-Goñi III.a | 15 |
| C/ | Reala | 1 | Rayo | 0 |
| D/ | Las Palmas | 0 | Athletic | 0 |


Goienako kanpo
produkzioak
Gure unitate ibiltaria zure esku
Jaialdiak
Antzerkiak
eta musika
Hitzaldiak,
batzar orokorrak,
Kirolak:
futbola,
pilota,
eskubaloia,
saskibaloia
BATZAR OROKORRA
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
Aurrekontua eskatu
Komertzial saila: Nafarroa etorbidea, z/g. 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa:943 79 22 93 • publi@goiena.com

Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko martxoaren 2a

Kultura eta Aisialdia

Martxoaren 2tik 9ra

2010. urtean, munduko biztanleen %80k tatuajeren bat eramango dute, egunkari italiar batek argitaratu duenez. Argi dago horiek guztiak ez direla marinelak, rock izarrak, motozaleak edo banda arriskutsuetako kideak, tatuajearen kondairak esaten duen bezala. Tatuajea galtzen ari da gutxi batzuendako izateko zigilu hori, eta geroago eta maizago ikusten ditugu bizitza guztirako apaingarri eta artelan horiek ipintzea erabaki dituztenak. Tatuajea egitea boladan dago, eta Debagoienean ere, edozeinen eskura dago bolada horretara gehitzea. Oraingoz, hala gura izanez gero, Arrasatera jo beharko dugu, hantxe daude-eta bailarako tatuajegileak: Mentxu, Totem dendan; Mireia, Aker-en; eta Elsa, Eklipsen.

Egon badaude ustez aldi baterako tatuajeak egiten dituztenak. Baina, egiaztatu ahal izan da tatuaje horiek ez direla sekula guztiz ezabatzen. Ziur egon behar zara tatuajea egin aurretik. Beti zurekin izango delako. / 14 LEIRE KORTABARRIA

# tatuajeak




GOIO ARANA

## Ikuskizuna | **Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak** Bergarako pilotalekuan

# Pailazo parrandazaleak

PILOTALEKUA BETE-BETE, MODAN DAUDEN TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOAK IKUSTEKO

**Noiz:** domekan hilak 25. **Ordua:** 17:30ean. **Non:** Bergarako udal pilotalekuan. **Zenbat jende:** frontoia topera, bete-bete bai guraso eta bai umeekin. **Sarrera:** 300 pezeta.



Parrandero onak eta profesionalak direla erakutsi zuten pailazo eta konpainiak. IBAN ARANTZABAL

**Emanaldia hasi baino lehen, argi ikusten zen gurasoek badakitela zeintzuk diren Takolo, Pirritx eta Porrotx. Ilara luzeak zeuden 17:00ak aldean, nork bere lekua hautatu eta ikuskizuna ondo ikusteko. Horrela hasi ziren, bada, guraso guztiak lekurik onenak eurendako hartzen. Guraso bakoitzak lau aulkitik gora erreserbatu zituen sartu orduko, eta horrela, bostak pasatxotan joan zirenak, lurrera edo golko pisura!**

Hasi baino lehen, dena prestatzeko ordu erdi inguru. Bergaran lehendik ere egonak direla nabaria zen, eta arazo barik jarri zituzten umeak behar den tokian. Emanaldia Bergarako pilotalekuan izatea pena izan zen, horrenbestebider moduan, frontoietan hain normala den soinu kaskarra nabaritu genuen eta. Batzuetan, pailazoei ez entenditzerainoko oihartzuna zegoen; dena dela, soinu kontu horiek guztiak ere oso neurtuta egon ziren.

Eta Takolo, Pirritx eta Porrotx? Ba, oso ondo, betiko moduan. Edozein plazatara egokitzen den taldea dugu hirukotea; hain da hori horrela, lurrikarak astindutako Santa Clara herritik etorri berri direla. Bidaiariak Somoto, Esteli, Ocotal eta Managuan zehar ibili dira, eta orain nikaraguarren alaitasuna Euskal Herrian barrena zabaltzeko asmoa dute. Bergaran ere halaxe egin zuten, alaitasuna zabaldu, baina ez txiste errazekin bakarrik. Esango nuke txistekeria baino, berba hori erabiltzea posible bada, txistetasunekin jokatzen dutela pailazoek. Txistetasuna diot, txistearekin batera beti esaten dutelako zerbait. Buruhandiei beldurrik ez izaten erakutsi ziguten, irabaztea eta galtzea modu egoki baten erakutsi, tranpa egitearen ondorioez jabetu eragin...

Izugarria da hirukote horrek duen ahalmena umeak bereganatzeko. Umeak diodanean, bi urteko umea edo 12 urtekoa izan daitekeela kontuan hartuta, lana nahikotxo zailtzen da; dena dela, bai bi urtekoendako eta bai nagusiagoendako ere ordu eta erdi inguruko entretenigarria eskaintzen dute. Ume txikienentzako koloreak, atzera, aurrera, alde batera, bestera, kiloak, erdia, handia, txikia kontzeptuak... erakusten dituzte. Nagusiagoek, ostera, bestelako kontuak, esaterako, parte hartzea garrantzitsuena dela ikasi, kantuan egin lotsak bazterrera utzita... Eta gurasoek ere badute ikasgairik, hala gura izanez gero, behintzat.

Uste dut Euskal Herrian asko aurreratu dugula hizkuntza kontuetan, eta horretan ere Takolo, Pirritx eta Porrotx maisuak dira. Ondo egindako gidoiarekin jokatzen dute, eta kantuan ere ez dira batere txarrak. Euren armarik onena horixe izango da: kantua, alegia. Gogoan dut Nikaraguara egindako bidaian hango hainbat abeslari eta artistarekin ere harremanak izateko zirela, esaterako, Carlos Mejia Godoyrekin; hango abestiak, Nicaragua Nicaragüita tartean, Euskal Herriko umeei erakusteko ikasi zituzten. Laster, bada, Andre Madalen kantuarekin batera, askotan hain ahaztuak ditugun lurraldeetako kantuak ere abestuko dizkigute.

IBAN ARANTZABAL

## Nire aukera

### Iker Barandiaran
**Kazetaria**



Sonic Rendezvous Band taldeak oso ibilbide motza izan zuen eta tartean ez zuen apenas ezer kaleratu. Detroiten, non bestela, sortutako Stooges zein MC5 oinarrizko taldeen partaide bana beste lagun batzurekin elkartu eta garaian inolako oihartzunik lortu gabe *City Slang* izeneko Epa besterik ez ziguten utzi. Gerora, zuzeneko batzuk bildu eta honako lana osatu dute. Punk-rock eta high energy-aren izpiritua eta nolabait ahotsean soula uztartuz, oilo ipurdia jartzen didate beraien kantuek. Egun, hauetako batek Hydromatics taldea eratu du, izpiritu ia berbera daramana. Azkenengo bi urtetan gehien atsegin dudan proposamena osatzen dute Detroiteko kantu triste hauek.

**'CITY SLANG'**
**Sonic Rendevous Band**




IBAN ARANTZABAL

## Kaleratu berriak

**Iban Arantzabal**

LIBURUA | *Kantuak*




**EUSKAL KANTAK**
Jose Ignazio Ansorena
Erein
327 orrialde

Euskaldunok makinatxo bat kantu dakizkigu, askotan zeinenak diren ere ez jakin arren. Letrak ere ez ditugu, hala ere, zehatz-mehatz jakiten. Zenbat bider erabili dugu lara-larala-lara-la errekurtsoa? Sarritan, zer esaten dihardugun jakitzeka ere egiten dugu kantuan... Liburukote honetan kantuak zeinenak diren, zuzen-zuzen zelan diren, zer esan nahi duten, zergatik sortu ziren... azalduko digu Jose Ignazio Ansorenak. Bestalde, aipatzekoa da inoiz ez bezala dagoela antolatua kantutegia: gaika, alegia.

LIBURUA | *Bertsolaritza*




**NIRE UZTAPIDE**
Pako Aristi
Bertsolari
184 orrialde

Bizitza ulertzen lagundu zion bertsolariaren berri ematen du Pako Aristik liburuan. Uztapide nor izan zen argiago geratzen da orain. Uztapide izenez ezaguna da, baina hala ere, bertsoak ez dira beste batzuenak bezain gogoratuak: haren ateraldiak ere ez dabiltza ahoz aho. Izaera nolabait ezkutatu egin da bere izen handiaren atzean. Entziklopediako fitxa bilakatu da Uztapide. Liburuan, kapitulu laburrekin eta Jon Zabaletaren marrazkiekin lagunduta beste Uztapide hori jorratu gura izan du.

LIBURUA | *Komikia*




**VILLA TESEI**
Angel Mosquito
Potxo argitalzuloak eta produccciones insalubres
300 pezeta

Herriko Potxo argitalzuloak, Argentinako Insalubres izeneko kolektiboarekin batera, bosgarren lana kaleratu du egunotan. Angel Mosquito da egilea eta erabiltzen duen hizkera lunfardoa, Buenos Airesen ohikoa dena. Irakurriaz bakarrik konturatuko gara txakurrak zein lapurrak erabiltzen dituen berben esanguraz: "fitito", esaterako "seizientosa" moduan ezagutzen duguna da, edo "la tumba" giltzapea. Herriko tabernetan aurkituko duzu salgai, 300 pezetan.

# Martxoa: 2-9

**Edu Mendibil** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**ARRASATE**

**> Legaleon-t** taldearen *Cómeme el punto* antzezlana domekan, hilak 4, Amaia antzokian, 19:30ean.

**BERGARA**

**> Txalo** taldearen *Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona* antzezlana egubakoitzean, hilak 2, Novedades aretoan, 22:30ean.

**ELORRIO**

**> London Mime Teatre** taldearen *Mozart* antzezlana datorren egubakoitzean, hilak 9, Arriola aretoan, 22:30ean.

## Musika

**ARRASATE**

**> Korrika kulturala** datorren egubakoitzean, hilak 9, Musakolako kiroldegian, 22:00etan. **Hijas del Sol**, **Faltrikeira** eta **Txanbela** taldeekin kontzertua. Sarrerak: Hiren eta AEK-Erdu euskaltegian.

**BERGARA**

**> Brigada Kriminal** eta **Suspenders** taldeak egubakoitzean, martxoak 2, gaztetxean, 23:00etan.

**> Dance party** zapatuan, hilak 3, Jam aretoan, eguerdian.

**> Cool Panic** zapatuan, martxoak 3, gaztetxean, 23:00etan.

**> Mikel Urdangarin** zapatuan, martxoak 3, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

**> Annihilator, Nevermore, Soilwork eta Rawhead Rexx** taldeak domekan, hilak 4, Jam aretoan, 19:30ean.

**> The Lyres** taldea eguenean, hilak 8, Jam aretoan, 22:00etan.

**> Mudvayne, Raging speedhorn** eta **Jousilouli** datorren egubakoitzean, hilak 9, 21:30ean.

**ELGETA**

**> Señor No, Fly Shit** eta **Ostiada Oi** zapatuan, hilak 3, gaztetxean, 22:30ean.

**OÑATI**

**> Adria Punti** kataluniarra egubakoitzean, hilak 2, Santana aretoan, 22:30ean.

**SORALUZE**

**> Freaky trio** jazz taldea eguaztenean, martxoak 7, Gaztelupe tabernan, 21:30ean.

## Erakusketak

**ARRASATE**

**> Ximena Saiterren** eskulturak Harresi aretoan, martxoaren 11 arte. Aste barruan, 18:00etatik 20:00etara, eta astebukaeretan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

**> Diana Orbe** margolariaren erakusketa Toki-Eder kafetegian, martxoaren bukaera arte.

**> Gipuzkoako zuhaitz eta zuhaixken herbarioa** Monterron jauregian, martxoaren 5etik 19ra.

**BERGARA**

**> Oihana Garitanoren** pintura eta argazki erakusketa kultura etxean, martxoaren 6tik 18ra.

**> Beatriz Perez** eta **Miren Etxeberriaren** olioak Nahikari tabernan. Biak ere Edurne Erañaren ikasleak dira.

**OÑATI**

**>** ***Euskal Herria eta dinosauruak*** Oñatiko Natura eskolan, Olakua auzoan, martxoaren 4a bitartean. Aste barruan, 18:00etatik 20:30era, eta zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

**EIBAR**

**> Aitor Larrañaga** zarauztarraren margo erakusketa Portalean, martxoaren 18a arte.

## Lehiaketak

**BERGARA**

**> IV. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Lehiaketan, nahi duten artista guztiek parte hartu ahal izango dute, eta partaide bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu. Kartelen gaia *Zezenak Bergaran* izango da, eta lanek Bergarako motibo bat edukitzea beharrezkoa izango da. Estiloa eta teknika librea izango dira. Marko barik, euskarri gogorrean edo bastidorearekin aurkeztuko dira. Neurria: 55x46 zentimetro, gutxienez, eta 146x114 zentimetro, gehienez. Lanak Bergarako kultura etxean aurkeztu beharko dira, astelehenetik egubakoitzera, 2001eko maiatzaren 3a eta 10a bitartean, biak barne, 16:00etatik 21:00etara bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Sari banaketa 2001eko maiatzaren 19an egingo da, zezenketako kartelaren aurkezpen ekitaldian.

**> XVI. literatura lehiaketa.** Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek esku har dezake. Adinaren arabera, bost talde egingo dira. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dira. Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea apirilaren 25ean bukatuko da, eta sariak ekainaren 9an banatuko dituzte. Argibide gehiago udaleko euskara zerbitzuan, 943 77 91 66 zenbakian.

**> Txorimalo lehiaketa** Erramu Zapatuan, apirilaren 17an, Jardun elkarteak antolatuta. Edozeinek parte hartu dezake, eta adinaren arabera, hiru maila bereiztuko dira. Izena emateko azken eguna: apirilaren 2a. Argibideak 943 76 08 19 zenbakian.

## Ikastaroak

**ARETXABALETA**

**> Areto dantzen ikastaroa,** Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak antolatuta. Egubakoitzetan izango da, 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izena ematea eta argibideak Loramendi elkartean edo 943 77 09 70 telefonoan.

**> Eskulan eta bainika ikastaroak,** Loramendi euskara elkarteak antolatuta.Eskulan ikastaroa martitzenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Bainikakoa, ostera, eguaztenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Izena ematea Loramendi elkartean bertan.

**ARRASATE**

**>** ***Masaje bateratua*** ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak. Zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.

**> Alboka** eta **txalaparta** ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak. Albokakoa San Juanak bitartean emango da, zapatuetan, Arrasate Musikalen, goizez. Txalapartakoa, aldiz, astelehen eta egubakoitzetan izango da, Musakolako saloian, arratsaldez. Argibide gehiago 943 77 00 65 telefono zenbakian.

**> Literatura tailerra** Monterronen, martxoaren 15etik apirilaren 5era, eguenetan, 18:00etatik 20:30era. Irakaslea Jon Alonso izango da. Izena ematea: 3.000 pezeta (2.000 pezeta ikasle eta langabetuendako). 943 77 00 65.

**> Euskal dantzen** ikastaroa. 10 urtetik gorakoendako. Martxoaren 2tik San Juanak bitartean, egubakoitzetan, 19:00etatik 20:30era. Matrikula: 1.000 pezeta. Argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.

**> Zeramika** ikastaroa martitzen eta eguenetan, Laixe zeramika elkartean (Nafarroa etorbidea, 23), 19:00etatik 21:00etara, ekainaren 21era arte. Irakaslea Ainhoa Arregi izango da. Prezioa: 7.500 pezeta (6.500, ikasle eta langabetuendako). Izena ematea Arrasateko Gazte Bulegoan.

## Deiak

**ARRASATE**

**> Indiarako laguntza** emateko, kontuak zabaldu ditu Medicus Mundi erakundeak Euskadiko Kutxan, Kutxan eta BSCH bankextean.

**> Hitzaldia.** *Zer egin sexuak beldurtzen gaituenean?* hitzaldia eguaztenean, martxoak 7, Monterronen. Hizlaria: Arantza Urkaregi feminista.

**BERGARA**

**> Bergarako gaztetxean** bideo emanaldia eguaztenean, 21:30ean.

**>** ***Elikadura ezagutu gaixotasunak prebenitu eta sendatzeko*** topaketa eguaztenean, martxoak 7, kultura etxean, 18:00etan, Sumendi osasunaren autogestiorako elkartearen eskutik. Udaleko Gizarte Ongizate Sailak antolatuta.

**> ETBko** ***Betimu*** saioa grabatuko dute eguenean, hilak 8, San Martin plazan, arratsaldez.

**> Iñigo Martinez "Memin"en** oroimenezko mendi irteera Irukurutzetara zapatuan, martxoaren 3an, goizeko 9etan, San Martin plazatik. Eguerdian, bazkaria izango da.

**> EHE** taldeak deituta, *Lurralde bat, hizkuntza bat, legeri bat, ofizialtasuna* lelopean, manifestazioa izango da egubakoitzean, martxoak 2, San Martin plazan, 20:00etan.

**> Badihardugu** elkartearen batzarra astelehenean, martxoak 5, 18:00etan, kultura etxean. Lantaldeak osatu ondoren, idazta-



KONTZERTUA

### MIKEL URDANGARIN

Mikel Urdangarin kantautore zornotzarra izango dugu zapatu gauean Bergaran. Urdangarinek arrakasta handia lortu du *Ispilue* hirugarren diskoarekin. Aurretik, *Haitzetan* eta *Badira hiru aste* izenburuko lanak kaleratu zituen. Zapatuko emanaldian bere diskografiako kantu ezagunenei errepasoa egingo die. Taldea lagun, abesti intimistak eskainiko ditu Urdangarinek.

**Noiz:** Martxoaren 3an. **Tokia:** Bergarako Udal Pilotalekuan. **Ordua:** 22:30. **Sarrera:** 1.000 pezeta.

## Antzerkia

**Legaleon-t taldearen *Comeme el punto* antzezlana Arrasaten**

Otsailaren 4an, Amaia antzokian, 19:30ean

rauak landuko dituzte.

> **Bergarako Orfeoiaren** batzar orokorra eguenean, martxoak 8, Orfeoiko egoitzan, 21:00etan.

### ESKORIATZA

> **Autoexigentziaren gaineko jardunaldiak.** Joaquin Garcia De Diosek *El esfuerzo para los logros, La disciplina para la libertad* eta *El sentido para la vida* gaiak jorratuko ditu eguenean, martxoak 8, Almeneko areto nagusian, 18:00etan.

## Jaiak

### ARRASATE

> **Andaluzia Egunaren XII. aldia.** Egubakoitzean, hilak 2, Rafael Gomezek gastronomiaren gaineko hitzaldia egingo du, 21:00etan. Eta zapatuan, martxoak 3, Andaluziako ereserkia 13:00etan, abestalde rozieroaren eskutik; Sueños de Andalucia dantza taldearen saioa 13:30ean, eta 14:30ean, herri bazkaria. Arratsaldean, 18:30ean, Alegria de la Sierra, Sueños de Andalucia, Coro rociero eta Algibe taldeen emanaldia, eta 21:30ean, afaria. Gero, gauerdian, dantzaldia.

> **Martxoaren 8aren inguruan** antolatutako ekitaldien artean, zapatuan, martxoak 3, artisau eta baserritarren azoka Seber Altube plazan. Eguenean, hilak 8, guraso eta gaztetxoendako txokolate jana eta ipuin kontakizuna izango dira gazte txokoetan eta ludotekan, 17:00etan. Gero, 19:00etan, manifestazioa irtengo da Portaloitik.

### BERGARA

> **Santu Martirixen feria Osintxun.** Zapatuan, martxoak 3, baserriko antzinako tresnen erakusketa frontoian. 10:00etatik 19:00etara eta 10:00etatik 14:30era, Osintxuko baserrien produktuen azoka. Goizean, talogileak egongo dira, eta eguerdian, Moises Aspiazu dantza taldearen saioa izango da. Era berean, Ainhoa eta Nerea trikitilari zarauztarrak. Gauean, 21:00etan, bertso afaria Txuringo jatetxean, Zeberio eta Irazurekin.

# Zinema

**ARRASATE / ALAI ZINEMA**

***El protegido***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00,19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**AMAIA**

***Agnes Browne***
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**BERGARA / NOVEDADES**

***Límite vertical***
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

***Encuentros privados (J.B.)***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**OÑATI / SANTANA**

***Al diablo con el diablo***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Banpiro txikia***
Domeka: 17:00.

***Aimee y Jaguar***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**EIBAR**

**UNZAGA**

***Family man***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

***Cadena de favores***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00,19:30, 22:15.
Domeka: 17:00,19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA**

***Los padres de ella***
Egubakoitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

***A flor de piel***
Egubakoitza, hilak 9, zine-kluba: 22:15.

**ELORRIO / ARRIOLA**

***Qué pasada***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

***La ruta hacia El Dorado***
Domeka: 17:00.

***Infiel***
Eguena:20:00.

**AZKOITIA / BAZTARTXO**

***Scary movie***
Zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

***Hong-Kongeko bahiketa***
Domeka: 17:15.

**GASTEIZ**

**GURIDI**

***Hannibal***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Liam***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Prueba de vida***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 22:30.

***Quills***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***102 dálmatas***
Egubakoitzatik eguenera: 17:30.

***Límite vertical***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 20:00, 22:30.

***Tigre y dragón***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 20:00, 22:30.

***No te fallaré***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:30, 1:00.
Domakatik eguaztenera: 17:30, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:30, 19:45, 22:45.

***La alegre divorciada***
Eguena (Montehermoso zikloa): 19:45.

**MIKELDI ZINEMAK**

***Cadena de favores***
Egubakoitza:20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

***Náufrago***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:00, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Billy Elliot***
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***La pasión del rey***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***La leyenda de Bagger Vance***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Tigre y dragón***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***102 dálmatas***
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15.
Astebarruan: 17:30.

***In the mood for love (Deseando amar)***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Hannibal***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:00, 22:45, 1.15.
Domeka: 17:00, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Prueba de vida***
Egubakoitza eta zapatua : 17:00, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**MIKELDI ZINEMA**

***Y decirte alguna estupidez, por ejemplo: te quiero***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**SAMANIEGO**

***Casi famosos***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Traffic***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Pan y rosas***
Egunero: 17:00, 22:30.

***Liam*** *(euskaraz)*
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***El bola***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.




**LÍMITE VERTICAL**
**ZUZENDARIA: MARTIN CAMPBELL.**
**AKTOREAK: CHRIS O'DONELL, BILL PAXTON, ROBIN TUNNEY, SCOTT GLENN. ADIN GUZTIAK**

*Peter* (Chris O'Donell) eta *Annie* (Robin Tunney) anai-arrebek istripu larria izan zuten mendian; segundo gutxiren bueltan, aitarekin lotzen zituen soka moztu behar izan zuen *Peter*rek, bere bizitza eta arrebarena salbatzeko. Istripuaren ondorioz, *Peter*rek eskalada uztea erabaki zuen, baina bere aitak hasitako bideari eutsi zion *Annie*k. *Annie*k eta espediziokideek beste istripu bat izango dute K-2 mendian, eta *Peter*rek gidatuko du erreskate taldea...

**EL PROTEGIDO**
**ZUZENDARIA: M. NIGHT SHYAMALAN. AKTOREAK: BRUCE WILLIS, SAMUEL L. JACKSON, ROBIN WRIGHT PENN. > 13 URTE**

*El sexto dia* filmarekin sekulako arrakasta lortu zuen Night Shyamalan zuzendariak. Oraingoan ere, Bruce Willis dugu protagonista nagusia. *David Dunn* gizon arrunta da eta tren istripu batek bizitza goitik behera aldatuko dio, bera izango delako bizirik irtengo den bakarra.

## Museoak

### ESKORIATZA

> **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalga, 5. Euskal Herriko historia, historiaurrea eta etnografia. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. 943 71 54 53.

### AZPEITIA

> **Trenbidearen euskal museoa.** Julian Elorza, 8. Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:30era. Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:30era.

### DONOSTIA

> **Zientziaren Kutxaespazioa.** Miramongo parkea. Martitzenetik zapatura, 10:00etatik 18:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 18:00etara. Zientzia eta teknikaren erakusketa interaktibo iraunkorra.

> **San Telmo museoa.** Zuloaga plaza, 1. Martitzenetik zapatura, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 14:00etara.

### BILBO

> **Guggenheim museoa.** Abandoibarra, 2. Martitzenetik domekara, 10:00etatik 22:00etara.

### GASTEIZ

> **Arkeologia museoa.** Correria, 116. Martitzenetik egubakoitzera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara.

> **Arabako armeria museoa.** Fray Francisco, 3. Martitzenetik egubakoitzera, 10:00etatik 14:00etara.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

BERGARAN, *Berrigara*ren egoitzan, Barrenkalea, 33
943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31
943 71 25 11

ARETXABALETAN, *Aretxagazeta*ren egoitzan; Durana, 11
943 79 86 21

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11
945 44 50 22

ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salbador, 26
943 76 81 90

ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kalebarren, 1
943 76 60 62



Goienkaria,
bailarako
hedabide nagusia.

Astero
20.000 etxetan.

Prezioa:
10.000 pezeta.

## JAIOTAKOAK

**Nora Ormaetxea Abascal**
Bergaran, otsailaren 4an.

**Carlos Odriozola Zubia**
Oñatin, otsailaren 16an.

**Christian Castelo Tena**
Bergaran, otsailaren 19an.

**Josu Elizburu Elgarresta**
Bergaran, otsailaren 20an.

**Dorleta Urkia Igartua**
Aretxabaletan, otsailaren 20an.

**Julen Errasti Gardoki**
Aramaion, otsailaren 22an.

**Iker Markiegi Arenaza**
Elgetan, otsailaren 22an.

## HILDAKOAK

**Angel Jose Junco Haces**
Oñatin, otsailaren 21ean,
86 urte zituela.

**Francisco Agirre Ondarra**
Bergaran, otsailaren 21ean,
75 urte zituela.

**Ursula Rogel Anton**
Bergaran, otsailaren 21ean,
87 urte zituela.

**Hipolita Ugarte Arregi**
Bergaran, otsailaren 22an,
90 urte zituela.

**Santiago Arrese Goikoetxea**
Oñatin, otsailaren 22an,
65 urte zituela.

**Demetrio Garcia Aparicio**
Arrasaten, otsailaren 22an,
74 urte zituela.

**Alejandro Alberdi Alberdi**
Bergaran, otsailaren 23an,
92 urte zituela.

**Nicolas Uriarte Agirre**
Oñatin, otsailaren 23an,
78 urte zituela.

**Jose Maria Atxotegi Berasaluze**
Arrasaten, otsailaren 25ean,
75 urte zituela.

**Patxi Urtzelai Unzueta**
Aretxabaletan, otsailaren 26an,
88 urte zituela.

**Serapio Satrustegi Andueza**
Arrasaten, otsailaren 26an,
82 urte zituela.

**Sor Emilia Etxeberria Zuloaga**
Arrasaten, otsailaren 27an,
86 urte zituela.

**Victoria Uribe Goitia**
Arrasaten, otsailaren 28an,
95 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Antonio Martinez Rivas** eta **Maria Josefa Murillo Magallanes**
Arrasaten, otsailaren 24an.

**Karmelo Agiriano Biain** eta **Maria Esther Roteta Unamuno**
Arrasaten, otsailaren 24an.

**Imanol Gantxegi Urtzelai** eta **Miren Begoña Gabilondo Sorotegi**
Bergaran, otsailaren 26an.



**Christian Castelo Tena** eta ama **Ana,** bergararrak biak. Christian otsailaren 19an jaio zen, eta 2,635 kilo pisatu zuen. **Javi Castelo** da aita, Coruñakoa.



**Julen Arriolabengoa Beitia** eta ama **Olatz,** eskoriatzarrak biak. Julen otsailaren 16an jaio zen, eta 3,400 kilo pisatu zuen. **Imanol** da aita, aramaioarra.



**Dorleta Urkia Igartua Larriñokoa,** Aretxabaletakoa, gurasoekin. Dorleta otsailaren 20an jaio zen, eta 3,400 kilo pisatu zuen. **Arantzazu** da ama, araoztarra; aita, berriz, **Jose,** Larriñokoa.

**Zure lagun edo senitartekoren bat ezkontzekotan badago eta zoriondu nahi baduzu, hemen duzu aukera. Ekarri bikotearen argazki bat *Goienkaria*ko erredakziora edo egoitza hauetara: Aretxagazeta eta Arrasate Presseko egoitzetara.**



**Iker Markiegi** elgetarra, **Bakarne Arenaza** amaren besoetan, atxabaltarra. Alboan, **Lide** lehengusina. Iker otsailaren 22an jaio zen, eta 3,645 kilo pisatu zuen. **Juanan** da aita, elgetarra.



**Aitor Maco Saavedra** eta ama **Marta,** mondragoetarrak biak. Aitor otsailaren 22an jaio zen, eta 2,925 kilo pisatu zuen. **Felipe** da aita, mondragoetarra bera ere.

### URTEURRENA

# Jose Julian Barrutia Olañeta

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoak 4,
12:00etan,
Elgetako Andra Mari
Jasokundearen elizan



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### II. URTEURRENA

# Jesus Sagasta Eguidon

*"Ez negarrik egin,
Jaunarengana noa.
Ni hilko naiz baina nire familia
eta lagunenganako maitasuna ez da hilko:
zeruan, lurrean bezala maiteko zaituztet"*



Arrasaten hil zen
1999ko martxoaren 1ean, 69 urte zituela.

Bere emaztea eta seme-alabak

### ESKER ONA

# Julian Biain Igartua

*Lehenengo urteurreneko elizkizunetara
joandakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*



### ESKER ONA

# Alejandro Alberdi Alberdi

"Elusu"

Bergaran hil zen
2001eko otsailaren 23an,
92 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

# Hipolita Ugarte Arregi

Bergaran hil zen 2001eko otsailaren 23an,
90 urte zituela



Haren seme-alabak: Jose Mari eta Maite Etxabe, Julia eta Jesus Idigoras, Lucas eta Rosa Mari Urrestarazu; bilobak: Arantzazu eta Igor, Eduardo eta Elena, Idoia eta Jokin; birlobak: Katixa, Olaia eta Danel; anai-arrebak: Maria (Jose Idigorasen alarguna), Jose (Alejandra Leturiaren alarguna) Carmen (Miguel Goñiren alarguna), Pruden eta Enrike Otxoa; koñatu-koñata: Micaela Ropon (Lucas Otaeguiren alarguna), Serafina Arregui (Claudio Ugarteren alarguna), ilobak, lehengusuak eta gainontzeko ahaideak.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



## Hitz gurutzatuak

Luma



**Ezker eskuma**

1/ Zorte txarra. 2/ Aditzera emanak. 3/ Behazuna. Róntgen. Idi hitz elkarketan. 4/ Izugarri. 5/ Oparo. Kanpo. Noren atzizkia. 6/ Potasioa. Eraso azkarra. Iodoa. 7/ Juntagailua. Itaunaren hasieran. Gauero egin ohi dugu. 8/ Hizki grekoa. Zintzoa. Begirada. 9/ Testu bati eginiko oharrak. 10/ Gipuzkoako herria. Nebak.

**Goitik behera**

1/ Lizunkeria. 2/ Egonkortasuna. Har ezazu!. 3/ Detektagailua. Arabako alderdi espainiarra. 4/ Iragana. Azti ezaguna. 5/ Gaude. Metal-mota. 6/ Ez eme. Gaiztaina hitz elkarketan. 7/ Komunikabide-mota. Sodioa. 8/ Titanioa. Kontsonantea. Bokala. Putre. 9/ Afrikako estatua. Oiloa bero egon. 10/ Elementu kimikoa. Kontsonantea.

## Bila-bila 7







## Umore giroan

Izaro Aperribai

**ALPERKERIXA**

Eskolan, maisuak lan bat aginddu dotse ikasliei: Alperkerixaren ondorixuak gaixaren gaiñeko idazlana. Hurrengo egunerako egindda ekarri bihar dabe. Hurrengo egunian, lanak entregatzeko orduan, Patxik orrixa zuri, ezer idatzi barik.

— Patxi, hau zer da, ba?

— Hori, alperkerixaren ondorixua!

**DANAK LANIAN**

Bi lagun juntau die kalian, aspaldiko partez:

— Joxe, zer moduz...?

— Ondo.

— Eta, etxekuak zelan?

— Primeran!

— Zenbat zarete, ba?

— Hamar anai-arreba.

— Eta bizi, zenbat?

— Bizi, neu bakarrik, bestiek lan egitten juek-eta...

**ALABA TXIKIXA**

Juanramon eta Joxemari txikittako lagunak elkar ikusi dabe futbolian:

— Joño, Joxemari, aspaldiko, zelan joiak, ba?

— Ondo, ezkondu egin nintzuan eta.

— Eta semeik?

— Bai, alabia euki giñuan eta oin dala bi hillabete hasi zuan ibiltzen.

— Bi hillabete? Urrin egongo dok orduan.

## Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



**Zein herritan, etxean ez gaztelania eta ez euskara beste hizkuntza bat erabiltzen dutenetako gehien?**

1996ko erroldan jaso zen informazioetako bat, etxean erabiltzen den hizkuntzaren gaineko informazioa izan zen. Debagoienean oso gutxi dira euskara eta gaztelaniaz aparteko beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak, baina herritik herrira badaude aldeak. Zein ote da proportziorik altuena duen herria?

- Aramaio.
- Arrasate.
- Eskoriatza.

**Erantzun zuzena:** Eskoriatza (%1,2); Aramaio (%0,59); Arrasate (%0,2)

## Soluzioak



**Ezker eskuma**

1/ Zorigaitza. 2/ Iragarriak. 3/ Kedar. R. It. 4/ Ikaragarri. 5/ Naro. At. En. 6/ K. Razzia. I. 7/ Eta. Ita. Lo. 8/ Ro. Ona. Soa. 9/ Iruzkinak. 10/ Aia. Anaiak.

**Goitik behera**

1/ Zikinkeria. 2/ Oreka. Toril. 3/ Radarra. UA. 4/ Igaroa. Oz. 5/ Gara. Zinka. 6/ Ar. Gaztain. 7/ Irrati. Na. 8/ Ti. R. A. Sai. 9/ Zaire. Loka. 10/ Aktinioa. K.

## Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Egun hauek emankorrak izan daitezke sormenerako edo artearekin lotutako ekimenetarako. Istilutsuak izan daitezkeen kontuak ekiditen saiatu zaitez.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Egun kaotiko samarrak, baina era berean, alaitsu eta positiboak. Lan kontuak ahaztu eta etxean familiarekin egoteko egun aproposak. Amodioko gaietan primeran ibiliko zara.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Irudia aldatzeko egun egokiak. Orrazkerari, janzkerari eta etxeko dekorazioari garrantzi handiagoa emango diezu. Gai ororen gainean hausnarketa egiteko ere egun aproposak.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ez ezazu laga inbidiak lagunen arteko harremanak izorratzea. Asmo txarreko pertsonek ez dezatela zugan eraginik izan, ez kasurik egin kontakatiluen txutxumutxuei eta txarto esanei.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Lan eta diru kontuetan egun onak izango dituzu aurrerantzean. Eguneroko kontuei garrantzi gehiago eman beharko zenieke. Amodiori dagokionez, zure bikotekidearekin praktikoa izan zaitez eta eduki hankak lurrean.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Egoista eta lotsabakoa ez bazara une ederrak izango dituzu amodio kontuetan. Lan arazoak direla eta, aisialdirako denbora gutxiago izango duzu. Virgo zaretenontzako lana oso garrantzitsua dela badakizu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Amodioari eta familiari dagokionez, ondo ibiliko zara. Iraganeko oroitzapenak bizi-biziak izango dira egun hauetan. Gauza txikiei garrantzi handia emango diezu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Ustekaberen batek ondo igarotzeko egunak izorratu ahalko dizkizu. Pazientzia izan. Amodioari eta sexuari dagokienez, dena izango da larrosa kolorekoa.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Sexua eta amodioa gori-gorian izango dira. Pasioa, erromantizismoa eta ametsak nagusituko dira. Ez egin gehiegikeriarik. Familiari eta etxeko jarduerei emateko egunak.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Bikotekidearekin harremanak bikainak izan daitezke. Bestalde, aisialdirako, jaietarako eta sormenerako egun egokiak izango dira. Urruneko norbaiten berri pozgarriak jasoko dituzu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Astia atera familiarekin egoteko. Gerta liteke, bestalde, beti amestu duzun bidaia egitea. Arretaz ibili gastuekin, ez itzazu desioak eta errealitatea nahastu.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Besteetan baino animosoago ibiliko zara eta festarako gogotsu. Kirolak eta jarduera fisikoak arazoei errazago aurre egiten lagunduko dizute.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

Bailarako
*berriak,*
bailarako
*jendea,*
bailarako
*telebistan.*

Goitb
Goiena Telebista

# Goiena Telebista

## Telebegi

### Ezin ikusi eta entzun

Debagoienean, *Goienkaria* eta GOITB jaio eta sortu dira. Bailarako informazioa eman eta jasotzeko. Baina, ikusentzuteko komunikabidea ez da eskualde osora zabaldu, uhinek urrutirago heltzeko ahalmena izaten duten arren, musika notak balira bezala. Hala ere, idatzizkoak hango eta hemengo berriak herri guztietan banatzen ditu, bertakoak, eta gertukoei zuzenduak. Nahi izanez gero, ikusi eta irakurtzeko. Ikusi eta ikasi, eta ondo entzun. Delirium Tremens taldeak zioen hori kanta baten. Oñatin, ordea, bailarako telebista ez ikusi eta ez entzun.

Baina, telebistaren aurrean eserita ere posible da hiru ekintzak betetzea. Ikusi, entzun, eta batzuetan, ikasi. Horien ondoren, sarritan kritika etortzen da, zerbait kritikatzeko, edozer izanda ere, asko behar ez bada ere. Gainera, onerako edo txarrerako, baina gustatu egiten zaigu kritikatzea, edo ez?

Telebista kateak eta programak ere askotan izaten dira hizpide, eta batzuetan kritikatzen ere ausartzen gara. Oñatin, ordea, ezin hori egin, ez GOITBren gainean, behintzat. Ez onerako eta ez txarrerako. Ezin dugu ikusi, entzun edo ikasi, beraz, nekez kritikatu dezakegu, eta iritzia *Goienkaria* bezalako emaitzak ikusteraino baizik ezin dira heldu.

Zergatik eta noiz arte?



Oihana Elortza

## Alkatearekin berbetan

Eguaztena, 21:05ean

### Bergarako alkatearekin solasean



Victoriano Gallastegi Bergarako alkatearekin solasaldia egingo dute GOITBn datorren eguaztenean. Victoriano alkatearekin batera, Eneko Azkarate, *Goienkaria*ko zuzendaria, eta Edu Mendibil, *Berrigara* aldizkariko zuzendaria, izango dira saioan. Saioa Ojanguren kazetariak gidatu eta aurkeztuko du, ohi bezala, saioa. Kontuan hartzeko hitzordua, eguaztenean, 21:05ean.

## Asteburuan, kirola

Domeka, 12:30ean

### Domeka eguerdian, eskubaloia

Zapatu arratsaldean Aloña Mendi eta Urola taldeek Oñatin jokatuko duten eskubaloi partidua oso-osorik eskainiko du GOITBk. Partidua, domeka eguerdian emango da, 12:30ean, asteburuko ohiko programazioaren aurretik. Iñigo Arregi kazetari oñatiarrak egingo du emanaldian esatari lanak. Eskubaloia atsegin duzuenok baduzue beraz non gozatu. Gogoan hartu, domekan 12:30ean Aloña Mendi- Urola GOITBn.

## Astebete

Egubakoitza, 21:05ean

### Asteari errepasoa



Ohi bezala, asteak informazioan eman duenaren laburbilduma eskainiko du egubakoitzean *Astebete* saioak. Gai nagusi bezala, eta kirol erakundeko lehendakarigaiak Arrasaten izan direla aprobetxatuz, Realaren bilakaera aztertuko dute. Futbolak gizartean duen garrantzi handia eta Realzaleen kezka kontuan hartuta, puri-purian dagoen gaia aztergai *Astebeten*. Programako ohiko edukiak ere ez dira faltako: herri aldizkarien errepasoa, albiste errota. 21:05ean

GOITB Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Martxoa: 2-8

| EGUBAKOITZA 2 | ZAPATUA 3 | DOMEKA 4 | ASTELEHENA 5 | MARTITZENA 6 | EGUAZTENA 7 | EGUENA 8 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)<br>20:00/20:30: **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Astebete**<br>21:30 **Soinuz blai** | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Ekilan, Aurrez aurre, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Ekilan, Aurrez aurre, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Astebete**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goienasport** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goienasport** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Xeleberri** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Ekilan** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Alkatearekin Berbetan** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Aurrez aurre** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Sarrera doan**<br>21:30 **Soinuz blai** |

## Barruko kontuak

### 'XELEBERRI'N ALDAKETAK

Eginbehar profesionalak direla-eta, Unai Iparragirrek ez du aurrerantzean Xeleberri saioa aurkeztu eta gidatuko. Aurrerantzean, Iratxe Eguen elorriarrak egingo du saioa. Itxuraldatuta etorriko zaigu datorren astetik aurrera Xeleberri albistegi eroa. Lasai, dena dela, saioko kazetari xelebreek kronika dibertigarriekin jarraituko dute eta. Unairi, mila esker egindako lanagatik, eta ea laster elkar ikusten dugun!

### AISIALDIA PROTAGONISTA

Eguenero emititzen da Sarrera Doan magazin kulturala. Saioan, Amagoia Lasagabasterren eskutik, asteburuan ikusgai ditugun kontzertu, zinema emanaldi eta antzezlanen berri ematen digute. Ez hori bakarrik, baita hainbat ekitaldirako sarrerak zozkatu ere. Astebururako ideien bila ari bazara, horixe da zure saioa: liburuak, filmak, disko kaleratu berriak, eskiatzeko pisten egoera, paraje ahaztuei kukuak...*Sarrera Doan*, eguenero, 21:05ean.

## Kamera aurrean



*"Gaur egun, haurrek eskola- kirola gazteleraz egiten dute. Horregatik, esparru hori irabazi egin behar dugu"*

**LORE LEANIZBARRUTIA** | (Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara eta kirol zuzendaria)
"BERRIAK" (2001-2-27)



*"Adin txikikoen legea gazteak bergizarteratzeko asmoarekin egin duela dio estatuak. Dena den, kale borrokan ari diren gazteekin nolabait etsi egiten du. Hau da, aldez aurretik esaten du gazte horiekin ez dagoela zereginik"*

**NEKANE SAN MIGEL** | (Bilboko auzitegiko epailea)
"BERRIAK" (2001-2-28)

**Goienkaria**©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** BERGARA 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
Aretxabaleta 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko martxoaren 2a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Alberto Elortza/Sukaldaria

**Jakirik gustukoena?**
— Ahate gibela edozein modutara prestatuta, beti goxoa egoten da eta.

**— Zein menu prestatuko zenioke hurrengo lehendakariari hauteskunde biharamunean?**
— Lehendakari zein izango den arabera. Freskofreskotik hasteko, entsaladatxo bat, eta gero, arrainen bat sartuko nuke, bakailao hostopilak edo. Okela apur bat ere prestatuko nioke, txahal-masailak, esaterako.

**— Txuletak, hezurrarekin ala hezurrik gabe?**
— Hezurrarekin, duda barik. Orain, arrazoi gehiagorekin, gainera.

**— Inoiz eskatu dizuten jakirik arraroena?**
— Asteburuetan, ezkontzak eta oturuntzak izaten ditugu batez ere, baina astean, kartarekin bakarrik egiten dugu lan. Inguruko herrietako enpresetatik nahiko atzerritar etortzen dira, eta izaten dute kapritxorik. Euren herriko jakiak sarritan eskatzen dituzte. Adibidez, txinatar talde batek legatza euskal erara eskatu zuen behin; arroza nahitaez izan behar zuen, ordea. Guk kanpora irteten dugunean jaki ezberdinak probatzea gustatzen zaigu; mundua ez da amaitzen 15 egunean betiko gauzak jan ezean, ezta?

**— Jatetxe berriren bat irekitzekotan, non?**
— Arantzazu bezalako gune estrategikoan ez nuke zabalduko, eta hiri handi baten, ere ez. 40.000 biztanleko herriren baten zabalduko nuke. 60 laguneko jangela izango luke, eta beti beteta balego, hainbat hobeto!

**— Euskaldunok jatun onak gara?**
— Nik uste dut baietz. Leku guztietan jan eta edaten da, baina gure ohiturarengatik eta klimarengatik, ondo jaten dakigu. Erosketak egiterakoan ere askoz ere zorrotzagoak gara.

**— Menu erromantiko bat?**
— Kandela pare bat eta ilusio handia da garrantzitsuena. Azkar jateko moduko menua jarriko nieke, gero, kontutxo batzuk esateko.

**— Eta afrodisiako bat?**
— Kanelako osagarriak dituena, intxaurrak...

**— Zergatik gizonezko sukaldari ezagun gehiago emakumezkoak baino?**
— Errua, neurri baten, andreek izan dute. Sukaldea beti zuzendu dute emakumezkoek. Emakumeak etxetik kanpo lanean hasi zirenean, gizonek hartu zuten ospea. Juan Mari Arzak, Castillo, Argiñano... Baina, emakumeek plater bat aurkezteko eta egiteko sentiberatasun handiagoa dute.

**— Sukaldari gustukoena?**
— Juan Mari Arzak. Ostalaritza eskolatik irten ondoren, ia hiru urtez egon nintzen Arzakekin lanean, eta ia bigarren sukaldari nintzela irten nuen handik.



**"Txuletak nahiago ditut hezurrarekin, duda barik"**

**"Ostalaritza eskolatik irten ondoren, ia hiru urtez egon nintzen Arzakekin"**

**"Emakumeek jaki bat prestatzeko eta aurkezteko sentiberatasun handiagoa dute"**

▶ *Oñatiarra / 38 urte / Zelaizabaleko sukaldaria*

## AIPAGARRI



**JULEN AREXOLALEIBA**
**Arrasate / Irakaslea**

Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateko 38 urteko irakaslea Quebecera doa, sei hilabeterako, soziolinguistikaren gaineko azterketa bat egitera.



**FELIPE URIARTE**
**Bergara / Telekomunikazioetako teknikoa**

Felipe Uriarte eta Angel Elkoro bergararrak Tindouf-eko saharauiarren kanpamentuetara doaz bihar, zapatua, hantxe irrati emisora bat jartzeko. Bilboko Herri Irratiak erabiltzen zuen uhin ertaineko emisora bat Fronte Polisariori emango diote.

**JUAN PEDRO ITURBE**
**Mondragoe / Besaidekoa**

Arrasateko Besaide Mendi Elkarteko kidea da eta, aurrerantzean, Gipuzkoako Mendi Federazioko presidentea izango da, Andoni Larrañaga bergararra ordezkatuz.

FM 107.7
arrasate irratia

# Arrasate Irratia

*Bizi-bizia.*

24 ordu etengabe emititzen

FM 107.7